ELDUAINGO UDALA
Udaletxea 1
20.493 Elduain
(Gipuzkoa)

EUSKAL HERRIA
BASQUE COUNTRY

**2017ko MAIATZAREN 3ko**
**UDAL OSOKO EZOHIKO BILKURA**

Elduainen, Udaletxeko bilera aretoan, aurrez egindako deira, 2017ko maiatzaren 3n, arratsaldeko zazpi t'erdietan, Udalaren Batzar osoa biltzen da ohiko saioan, behean aipatzen diren zinegotziak, Jose Angel Urkizu Odriozola Alkatearen lehendakaritzapean.

- Juan Ramon Gurrutxaga Lasa
- Goreti Soroa Martinez
- Maite Bizkarrondo Arzallus
- Miren Amaia Askasibar Agirre

Ez da/dira batzarreratu

Inor ez.

Bertan dago eta fede ematen du Udaleko idazkari kontu-hartzaileak:

- Maria Pilar Garmendia Miguel

Osoko Bilkura legez osatzeko behar adinako kopuruak parte hartzen duela egiaztatu ondoren, lehendakariak, 19:30 ordu direnean, bilkura irekitzat eman eta gai-zerrendako puntuen azterketari ekiten zaio.

**LEHENENGO PUNTUA:**
**2017.URTEKO UDALAREN AURREKONTUA, LANTALDE ORGANIKOA ETA LANPOSTUEN ERLAZIOA, HASIERA BATEZ ONARTZEKO PROPOSAMENA.-**

2017 ekitaldirako Udal Aurrekontuaren proiektuak honako kapituluzko laburpena azaltzen du:

**SARRERAK GUZTIRA**

| SARRERAK | 2017 Aurrekontua |
|---|---|
| I. ZUZENEKO ZERGAK | 80.000,00 |
| II. ZEHARKAKO ZERGAK | 5.000,00 |
| III. TASAK ETA BESTELAKO ZERGAK | 32.530,00 |
| IV. TRASFERENTZI ARRUNTAK | 255.222,00 |
| V. ONDAREZKO SARRERAK | 0,00 |
| VII. KAPITAL TRASFERENTZIAK | 0,00 |

| GUZTIRA | 372.752,00 |
|---|---|
| | |
| | |

## GASTUAK GUZTIRA

| GASTUAK | 2017 Aurrekontua |
|---|---|
| I . PERTSONAL GASTUAK | 134.250,00 |
| II. ONDASUN ARUNTAK ETA ZERBITZUEN EROSKETA | 86.925,00 |
| III. FINANTZA GASTUAK | 10,00 |
| IV. TRASFERENTZI ARRUNTAK | 25.675,00 |
| VI. INBERTSIO ERREALAK | 116.842,00 |
| VII. KAPITALEZKO TRANSFERENTZIAK | 3.050,00 |
| IX. FINANTZA PASIBOAK | 6.000,00 |
| **GUZTIRA** | **372.752,00** |

Aurrekontuan derrigorrezko gastuei aurre egiteko behar diren kredituak jarri behar dira. Hauek dira, besteak beste, derrigorrezko gastuak: zor exigigarriak, zentsuak, pentsioak, finantza kargak; beharrezko izaera duten zerbitzu emateen gastuak, langileenak, bulego material eta dependentzienak; entitateari egotzitako zerbitzuak ordaintzeko zuzenduriko gastuak, aurrez zehaztutako hitzarmen eta konpromisoetatik datozen gastuak nahiz behar eta presa nabarmena duten obrak eta instalazioak egitetik datozen gastuak.-

Hori guztia ikusita, Udal Batzarrak ahobatez, zera

**ERABAKITZEN DU:**

**LEHENA:**
Aurkeztu den eta jasota geratu den kapitulukako laburpena duen 2017. ekitaldiko udal Aurrekontuaren proiektua hasierako izaeraz onartzea, hala nola akta honen eranskin I, II eta III moduan agertuz, udal Plantilla Organikoa eta Lanpostuen Zerrenda, baita Aurrekontuaren Exekuzio Araua.-

**BIGARRENA:**
Espediente osoa erabaki honekin batera arauzko jendaurrekoan ezarriko da.-

**HIRUGARRENA:**
Jendaurreko epealdian erreklamaziorik aurkezten ez bada, aurrekontua behin-betiko onetsitaz joko da.-

**BIGARREN PUNTUA:**
**2016KO EKITALDI EKONOMIKOAREN KONTU OROKORRA BEHIN-BEHINEKO IZAERAZ ONARTZEKO PROPOSAMENA.-**

Ikusirik 2016ko maiatzaren 24an Kontuetako Batzorde Bereziak eginiko bileran onarturiko diktamena, aipatu espedientea aldeko informatuz.

Hori guztia ikusita, Udal Batzarrak ahobatez, zera

**ERABAKITZEN DU:**

**BAKARRA**: Onartzea 2016ko Kontu Orokorraren espedientea.-

**HIRUGARREN PUNTUA:**
**ARRAZAKERIAREN ETA XENOFOBIAREN AURKAKO KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA" MOZIOA ONARTZEKO PROPOSAMENA.-**

Alkateak mozioaren irakurketari ekiten dio, izanaz bere letraz letrazko edukia

Nazio Batuen Batzar Nagusiak martxoaren 21ean ospatzen du Arrazakeriaren eta Xenofobiaren Kontrako Nazioarteko Eguna, eta estatu-kideei eskatzen die ekintza-planak abiarazi ditzaten, arrazakeria eta apartheida ezabatzeko. UNESCOko zuzendari nagusiak 2017an zabaldutako mezuak gogorarazten digu *arrazakeriak gizabanakoak eta gizartea hondatzen dituen pozoia dela, ezberdintasunak iraunarazten dituela, eta haserrea, amorrua eta indarkeria bultzatzen dituela. Krisi ekonomikoa eta ziurgabetasun soziala ezaugarri duten garaiotan, erraza da "bestea" erruduntzat hartzea, eta arraza-diskriminazioa tentazio arriskutsua bihurtzen da, zeina gorrotoaren artisauek ondo aprobetxatzen dakiten.*

La Asamblea General de Naciones Unidas conmemora el 21 de marzo como Día Internacional de la Eliminación de la Discriminación Racial y exige a los Estados miembros que impulsen programas de acción enfocados en la erradicación de la discriminación racial y el apartheid. El mensaje de la Directora General de UNESCO en 2017 nos recuerda *que la discriminación racial es un veneno que menoscaba a las personas y las sociedades, perpetúa las desigualdades y fomenta la ira, el resentimiento y la violencia. En tiempos de crisis económica y de incertidumbre social, es fácil hacer del "otro" un chivo expiatorio, y la discriminación racial es una tentación peligrosa que los artesanos del odio saben*

Gaur egungo arrazakeria-, arraza-diskriminazio, xenofobia- eta antzeko tolerantzia-ezeko ereduen NBEko errelatore bereziak txostena egin zuen 2013an Espainiaren inguruan. Bertan, gogor kritikatu zuen arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako legeria, eta baietzi zuen migratzaile, ijito eta errefuxiatuen eskubideak urratzen zirela. Zehazki, adierazi zuen krisi ekonomikoak atzerakada ekarri zuela arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako borrokan; besteak beste, ildo horretan lan egiten duten erakundeen laguntza finantzarioaren ezagatik.

Arrazakeriaren eta Xenofobiaren Aurkako Europako Batzordea (ECRI) Espainiara etorri da 2017ko urtarrilean, bosgarren txostena egiteko asmoz. Laugarren txostenean (2011) Nazio Batuetako errelatoreak agertutakoen antzeko kezkak jaso ziren.

Martxoaren 21ak gogorarazten digu edonolako arraza-diskriminazioa ezabatu beharra dagoela; eta bereziki garrantzitsua gertatzen da, gizarte guztietan oraindik jarraitzen eta irauten duten xenofobia-mota sotilez gain, beste xenofobia-adierazpen kezkagarriak azaleratu direlako, gobernuek, gizarte-erakundeek, alderdi politikoek eta beste hainbat eragilek sustatuta. Horiek xenofobia-eredu instituzionalizatuak bihurtu daitezke eta, ondorioz, diskriminazioa ekarri dezakete. Halako jarrerak, behin martxan, oso zailak dira gelditzen. Jakina, Europatik iristen diren oihartzun larrigarri ugariak direla-eta,

*aprovechar*.

El Relator especial de la ONU sobre las formas contemporáneas de racismo, discriminación racial, xenofobia y formas conexas de intolerancia, en su informe de 2013 sobre el estado español fue muy crítico con la legislación contra el racismo y la xenofobia, y constató la vulneración de derechos de personas migrantes, gitanas y refugiadas. Concretamente señalaba cómo la crisis económica suponía un retroceso en la lucha contra el racismo y la xenofobia, entre otros motivos, por la falta de apoyo financiero a las organizaciones dedicadas a esta labor.

La Comisión Europea contra el Racismo y la Xenofobia (ECRI) del Consejo de Europa, ha visitado en enero de 2017 el estado español con objeto de realizar el 5º informe. En el 4º informe (2011) señalaba similares motivos de preocupación a los del relator de Naciones Unidas.

El 21 de marzo, que recuerda la necesidad de eliminar todo tipo de discriminación racial, cobra especial relevancia porque junto a la existencia y persistencia de formas sutiles de xenofobia presentes en todas las sociedades, emergen otras alarmantes manifestaciones de xenofobia alentadas desde gobiernos, organismos sociales, partidos políticos y otros muchos agentes que pueden terminar convirtiéndose en formas institucionalizadas de xenofobia y consecuente discriminación. Este *continuum* es muy difícil de parar una vez

| | |
|---|---|
| egoerarik txarrena aurreikusten dugu, eta horixe barneratzen dugu, bai eta Europaren aukera ere. | iniciada su andadura. Desde luego, los muchos ecos preocupantes que nos llegan desde Europa hacen presagiar lo peor, llegando a socavar la misma idea, e incluso posibilidad, de Europa. |
| Mugimendu xenofoboak gizartean zabaldu ohi dira, inpunitate-eremuak zein onespen-guneak sortuz. Egoera horiek sendotu eta finkatu egiten dira liderrak proposatzen dituztenenean, gizartean haien parekorik ez dagoela baieztatzen dutelarik. Hala, pentsamolde ideologikoak askatzen dituzte, zeinek, lehentasun nazionalaren izenean, tartea gordetzen eta indartzen duten biztanleriak duen immigranteen behar materialaren eta etorkinek harrera-gizarteetan jasaten duten gaitzespenaren artean. Bada logika hori –lagungarria eta okerra dena aldi berean– laburtzen duen lema bat: *Needed, but not Wellcome!* | Todo movimiento xenófobo tiende a expandirse socialmente creando ámbitos de impunidad y zonas de aquiescencia. Estas realidades suelen intensificarse y tomar plaza cuando sus proponentes son liderazgos que, afirmando basarse en sentires sociales únicamente, dan rienda suelta a corrientes ideológicas que en nombre de la preferencia nacional mantiene y fortalece el divorcio entre la necesidad material de población inmigrante y el rechazo que tales inmigrantes sufren en las sociedades receptoras. Un lema resume esta lógica tan socorrida como desacertada de *Needed, but not Wellcome!* |
| ZAS! Zurrumurruen Aurkako Sarean, aditzera eman nahi dugu **konpromisoa hartu dugula dauden prozedura eta mekanismo guztiak sustatu eta abian jartzeko, xenofobia- eta diskriminazio-ereduak –sotilak eta agerikoak, ala ez hainbeste– sustatu nahi dituzten proposamen politiko eta diskurtsoak ahultzeko.** Adierazpen eta diskurtso horiek ez dira gure izenean egingo, ez eta erakundeen izenean ere. | ZAS! Red Vasca Antirumores **tiene el compromiso de impulsar y poner en marcha todos los procedimientos y mecanismos disponibles para debilitar tanto los discursos como las propuestas políticas orientadas al fomento de formas más o menos sutiles o manifiestas de xenofobia y discriminación**. No al menos en nuestro nombre, ni desde las instituciones. |
| Ikusirik politika xenofoboek zenbateraino egin duten aurrera Europan eta mundu-mailan, berretsi nahi dugu gure konpromisoa; hots, inpunitate-dinamikak galaraztearena baiezko demokratiko eta irmo baten bidez, ez | Ante el avance de fuerzas políticas xenófobas en el contexto europeo y mundial, reafirmamos nuestro compromiso para impedir las dinámicas de impunidad mediante una afirmación democrática |

| | |
|---|---|
| daitezen gobernura iritsi. Giza eskubideek lehentasuna dute, eta eskuratu ditugun gobernu-moldeek barne hartu behar dituzte; horretarako, beharrezkoa da erakundeek irmoki uko egin diezaietela xenofobiari eta arrazakeriari. | firme que imposibilite su acceso a los diferentes niveles de gobierno. Los derechos humanos anteceden y deben quedar incorporados en las formas de gobierno de las que nos hemos dotado y ello exige una posición firme de cierre institucional a la xenofobia y al racismo. |
| ZAS! Zurrumurruen Aurkako Sareak ezinbestekotzat jotzen du: | ZAS! Red Vasca Antirumores considera importante: |
| • Arrazakeria eta xenofobia prebenitu eta ezabatzeko politika publikoak nahiz gizarte-estrategiak bultzatzea, ikuspegi deskolonizatzaile batetik eta elkargunea bilatuz. | • Impulsar políticas públicas y estrategias sociales para la prevención y la eliminación del racismo y la xenofobia en todos los ámbitos, desde una mirada descolonizadora e interseccional. |
| • Immigranteek egindako ekarpenak azpimarratzea, eta Euskadiko biztanle guztien aukera berdintasuna bermatzea, baita sustapen sozial, ekonomiko eta kulturalerako aukerak indartzea ere. | • Subrayar las contribuciones de la inmigración, garantizar la igualdad de oportunidades y la promoción social, económica y cultural de toda la ciudadanía que reside en Euskadi. |
| • Kulturartekotasunaren aldeko eta arrazakeriaren aurkako jarrerak sustatzen dituzten hedapen- eta sentsibilizazio-ekintza nahiz estrategiak aktibatzea, zurrumurruen aurkako sareak sendotuta eta hezkuntzari arreta berezia eskainita, formalari zein ez-formalari. | • Activar estrategias y acciones de difusión y sensibilización que fomenten la interculturalidad y el antirracismo, fortaleciendo redes antirumores, con una atención especial al ámbito educativo formal y no formal. |
| • Etika publikoa sustatzea, zeinak herritarrak kontzientziatuko dituen eta edozein arrazakeria- edo xenofobia-aztarna ezabatuko duen. | • Promover una ética pública que conciencie a la ciudadanía y elimine todo remanente racista o xenófobo. |
| • Alderdi politiko guztiek kode etikoa bereganatu dezatela gomendatzea, konpromisoa hartu dezaten demagogia eta populismorik ez egiteko immigranteen inguruan; bai eta mekanismoak ezarri ditzatela ere, konpromiso hori betetzen ez dutenak zehatzeko. | • Recomendar que los partidos políticos se doten de un código ético por el cual se comprometan a no hacer demagogia ni populismo con la inmigración y que se doten de mecanismos que sancionen a quienes |

| | |
|---|---|
| | incumplan este compromiso. |

Presidentziak aurkeztutako mozioa bozkaturik, onartua gertatzen da.-

Eta, 21.10 ordu direnean, lehendakariak batzarra amaitutzat jo zuen, eta gertatuakoaren berri agerian gera dadin akta hau prestatu eta sinatzen dut.

Elduain, 2017ko maiatzaren 3a.

O.e. Idazkari-Kontuhartzaileak,
Alkateak

2018 URTERAKO ELDUAINGO UDALAREN LANPOSTUEN ZERRENDA
RELACIÓN DE PUESTOS DE TRABAJO DEL AYUNTAMIENTO DE ELDUAIN PARA EL AÑO 2018

ELDUAINGO UDALA
Udaletxea 1
20.493 Elduain
(Gipuzkoa)

EUSKAL HERRIA
BASQUE COUNTRY

| | |
|---|---|
| ***Osoko Bilkurak 2017ko abenduaren 26an egindako ohiko bileran, onartutako 2018. urterako Elduaingo Udalaren lanpostuen zerrenda.*** | ***Relación de puestos de trabajo para el año 2018 del Ayuntamiento de Elduain, aprobada por el Ayuntamiento Pleno en sesión ordinaria de 26 de diciembre de 2017.*** |

| Lanpostua/ Puesto | Saila/ Sección | Izaera/ Condición | Eskala/ Escala | Azpitaldea/ Grupo | Maila/ Nivel | Lan-saioa / Dedicación | H.E/ P.L. | Der.data/ Fecha Percep. | Tit. * Tit.* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Idazkari Kontu-hart./ Secretario-Interventor | I-K<br>S-I | F<br>F | G.E.<br>H.E. | A1<br>A1 | 21<br>21 | %30<br>30% | 4<br>4 | 95.04.30<br>30.04.95 | Z/E/S Liz.<br>D/E/S Lic. |
| Gizarte langilea/ Trabajadora social | Gizarte Zerbitzu./ Servicios Sociales | F<br>F | | B<br>B | 17<br>17 | %14,28<br>14,28% | 3<br>3 | 11.09.27<br>27.09.11 | Diplom./<br>Diplom. |
| Udal Zereg. Ofiziala/ Operario de servicios | Adm. Orok. Adm. General | L<br>L | | ULE1<br>APM1 | 12<br>12 | %100<br>100% | 2<br>2 | 09.04.30<br>30.04.09 | DBH /<br>ESO |
| Adm. Lagunt./ Aux. Admvo. | Adm. Orok./ Adm. General | F<br>F | | C2<br>C2 | 14<br>14 | %100<br>100% | 3<br>3 | 09.04.30<br>30.04.09 | DBH /<br>ESO |

| Tit * = Titulazioa | Tit. * = Titulación |
|---|---|
| Z/E/S Liz. = Zuzenbidean, Zientzia Politika eta Administrazio Zientzietan, Soziologian, Administrazio eta Enpresa Zuzendaritzan, Ekonomian edo Finantza Zientzietan Lizentziatua. | Z/E/S Lic. = Licenciado en Derecho, Ciencias Políticas y de la Administración, Sociología, Administración y Dirección de Empresas, Economía o Ciencias Actuariales y Financieras. |
| DBH = Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza | ESO = Educación Secundaria Obligatoria |

| | |
|---|---|
| Argitara ematen da guztien jakinerako, Erregimen Lokaleko arloan indarrean dauden legezko xedapenak onartzen dituen apirilaren 18ko 781/1986 Erret Dekretu Legegileko 127. artikuluan eta Euskal Funtzio Publikoko uztailaren 6ko 6/1989 Legeko 16. artikuluan xedatutakoa betez. | Lo que se publica para general conocimiento, en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 127 del Real Decreto Legislativo 781/1986, de 18 de abril, por el que se aprueban las disposiciones legales vigentes en materia de Régimen Local y artículo 16 de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca. |

2018 URTERAKO ELDUAINGO UDALAREN LANTALDE ORGANIKOA
PLANTILLA ORGÁNICA DEL AYUNTAMIENTO DE ELDUAIN PARA EL AÑO 2018

ELDUAINGO UDALA
Udaletxea 1
20.493 Elduain
(Gipuzkoa)

EUSKAL HERRIA
BASQUE COUNTRY

| Osoko Bilkurak 2017ko abenduaren 26an egindako ohiko bileran, onartutako 2018. urterako Elduaingo Udalaren lantalde organikoa. | Plantilla orgánica para el año 2018 del Ayuntamiento de Elduain, aprobada por el Ayuntamiento Pleno en sesión ordinaria de 26 de diciembre de 2017. |
|---|---|

| KARRERAKO FUNTZIONARIOENTZAKO GORDETAKO LANPOSTUAK | PLAZAS RESERVADAS A FUNCIONARIOS DE CARRERA |
|---|---|

| Lanpostuaren izena | Lanpostu kopurua | Azpitaldea | Egoera |
|---|---|---|---|
| Idazkari Kontu-hartzailea | 1 | A1 | H |
| **Oharra**: %30,00eko dedikazioa. Berastegiko Udalarekin elkartea | | | |
| Gizarte Langilea | 1 | B | H |
| **Oharra**: %14,28ko dedikazioa. Berastegiko Udalarekin elkartea | | | |
| Administrari laguntzailea | 1 | C2 | H(a)* |

(a) % 100ko lan-saioa.

(1) = J: Jabetzan; H: Hutsik

| Denominación de la plaza | Número de plazas | Subgrupo | Situación (1) |
|---|---|---|---|
| Secretario/a Interventor/a | 1 | A1 | V |
| **Observación**: 30,00% de dedicación. Plaza agrupada con el ayuntamiento de Berastegi | | | |
| Trabajadora Social | 1 | B | V |
| **Observación**: 14,28% de dedicación. Plaza agrupada con el ayuntamiento de Berastegi | | | |
| Auxiliar Administrativo | 1 | C2 | V(a)* |

(a) Dedicación 100%.

(1) = P: Propiedad; V: Vacante

| BEHIN BETIKO PERTSONAL LABORALARI ESLEITUTAKO LANPOSTUAK | PUESTOS DE TRABAJO ATRIBUIDOS A PERSONAL LABORAL FIJO |
|---|---|

| Izena | Asimilazio Azpitaldea | Kop. | Oharrak |
|---|---|---|---|
| Udal Zereginetarako Ofiziala | ULEI1 | 1 | (a) |

(a) % 100eko lan-saioa.

| Denominación | Subgrupo de asimilación | N.º de puestos | Observ. |
|---|---|---|---|
| Operario de servicios | APM1 | 1 | (a) |

(a) Dedicación del 100 %.